



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Vanessa Goikoetxea sopranoak eta Rubén Fdez. Aguirre pianistak Andres Isasiren abesti ziklo bat interpretatuko dute, lehen aldiz bertsio osoak eta originalak eskainiz

- *Isasi, Bilbo-Berlín* errezitalean, lehen aldiz interpretatuko dute osorik, eta Andrés Isasik (1890-1940) sortu bezala, Heinrich Heine (1797-1856) alemaniar poetaren olerkiei buruzko ahots eta pianorako hamalau abestiko zikloa.
- Azpimarratzekoa da Carlos Ímazek obraren jatorrizko partituraren arrastoa jarraitzeko eta hura berreraikitzeko egindako lan nekeza eta zehatza.
- Gainera, Goikoetxeak eta Fdez. Aguirrek Carlos Ímazek berak konposatutako lau piezaz osatutako “Cuatro canciones en forma de poema” obraren erabateko estreinaldia eskainiko dute.
- Emanaldia apirilaren 18an izango da, asteartean, 19:30ean, LIED ARRIAGAN zikloak urteko lehen seihilekorako proposatzen dituen sei hitzorduetatik laugarrenean.

Bilbo, 2023ko apirilaren 13a.- Datorren asteartean, apirilaren 18an, 19:30ean LIED ARRIAGAN zikloaren beste hitzordu bat izango dugu Arriaga Antzokiko foyerrean: zikloak 2023ko lehen seihilekoan zehar eskaintzen dituen piano eta ahots formatuko sei emanaldietatik laugarrena izango da.

Hitzorduaren protagonista nazioartean ere lanean ari den **Vanessa Goikoetxea** soprano euskalduna da, zeina **Ruben Fdez. Aguirre** pianoan ari dela jardungo baita. Elkarrekin, *Isasi, Bilbo-Berlín* izeneko errezital oso berezia eskainiko dute, zeinetan, lehen aldiz interpretatuko baitute osorik eta **Andrés Isasik** (1890-1940) sortu bezala **Heinrich Heine** (1797-1856) alemaniar poetaren olerkiei buruzko ahots eta pianorako hamalau abestiko zikloa.

Arriaga Antzokiak Lied Arriagan zikloaren errezital hau bultzatzen du, efemeride berezi batekin bat etorritik. Orain, 2023ko apirilean, zehazki 110 urte dira Isasik Heinen poemei buruzko ziklo hori konposatu zuela. Isasik Berlinen ikasten eman zuen aldiaren egin zuen obra hau, garaiko europar konpositore garrantzitsuenetako batzuen eskutik.

Datorren astearteko errezitalaren balioa, dena den, harago doa. Hainbat hilabetez buru-belarri lan egin ondoren, Arriaga Antzokiak atsegin handiz eskaintzen du ziklo osoaren erabateko estreinaldia, jatorrizko bertsioan eta jatorrizko hizkuntzan. Artxiboetan abesti batzuen edizioa gordetzen da, baina beste batzuk ohiko kopistak ez zituen garbira pasa ere; beraz, esan dezakegu ziklo osoa ez zela inoiz jendaurrean interpretatu egilea bizirik zegoenean. Esan genezake efemeridea dela une ezin hobea

antzokiak konpositore bilbotarraren lana bere baitan har dezan, sortu zen moduan. Meritua Vanessa Goikoetxea eta Rubén Fdez. Aguirreri egotzi behar zaie, kontzertuaren interpreteei, baina aipamen berezia merezi du halaber **Carlos Ímaz** musikari, moldatzaile eta konpositorearen lanak.

Ikertzea eta berreraikitzea

Artxiboetan pazientzia handiz zain dagoen musika berreskuratzeko eta haren garrantzia azpimarratzeko ahaleginean, Rubén Fdez. Aguirrek, orainoan Vanessa Goikoetxearen jardun ona eta errepertorio mota honetarako ahots fidagarria izango zituela jakinik, Carlos Ímaz konpositoreari eskatu zion jatorrizko partituraren aztarnari jarraitzeko.

Kontserbatzen zen grabazio bakarra 1999an egin zuten Javier Solaunek eta Alejandro Zabalak, Getxoko Andrés de Isasi Kontserbatorioan gordetako kopia batetik abiatuta, zeina nabarmen desberdintzen baitzen eskuizkributik. Jatorrizko obra berreraikitzea ez da erraza izan, idazkera, akatsak eta erratak deszifratzeko ohiko prozesuaz gain, egilearen gustua gehitu behar baitzaio, askotan aldakorrak diren hainbat bertsio egiten baititu, bere bilakaera musikal pertsonalari jarraiki. Batetik, Carlos Ímazen lan nekezaren eta zorrotzaren emaitza eta, bestetik, Vanessa Goikoetxearena eta Rubén Fdez. Aguirreren Arriagako foyerrean emango dira ezagutzera datorren asteartean, hilaren 18an, 19:30ean.

Eta gainera... erabateko beste estreinaldi bat

Vanessa Goikoetxea eta Rubén Fdez. Aguirreren eta Carlos Ímazen arteko elkarlanak amaiera musikal bikaina eskainiko du errezitalean, sopranoak eta pianistak Ímazek berak konposatutako obra berri bat interpretatuko baitute. *Cuatro canciones en forma de poema* da, Matías González Pinosen poesiak biltzen dituen lau abestiz osatutako zikloa. Arriagan obra honen erabateko estreinaldia izango dugu asteartean.

Lied Arriagan zikloa

Vanessa Goikoetxea eta Rubén Fdez. Aguirreren kontzertua Arriaga Antzokiak ziklo honen baitan programatutako sei kontzertuetatik laugarrena da, zeinak maiatzaren 23an jarraituko baitu, Robert eta Clara Schumannen *Lieder* musikaren interpretazioarekin, Anna Alàs i Jové mezzosopranoaren eta Aurelio Viribay pianistaren eskutik.

Azkenik, Lied Arriagan zikloari amaiera emateko, David Alegret tenorak eta Rubén Fdez. Aguirre pianistak Josep Carner egile katalana gogoratuko dute *Carneriana* izeneko kontzertuarekin. Ekainaren 13an izango da hori.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 15 euro (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus